

PILOTA

Maisua gaur
Galarretan

JUAN I. ZULAIKA

Txikito de Bolibar, azken bi hamarkadetakoa puntistatik baikainena, gaur Galarreta pilotalekuan izango da. Txikito 1974. urtean ezagutu nuen Tampan. Bolibar ezizenarekin jokatzeko zuten. Izen horrekin ezagutu genuen eta horrela deitzen genion. Pilotari modura nire lehen denboraldia zen Floridako lurraldeetan, eta hirugarrena Bolibarkoarentzat. Orduan izan zen Tampako punta puntako pilotari bilakatu zen garaia. Zuen gorputza ikusita sinestezina zen kantxan erakusten zuten aparteko maila. Zuen arintasunak, senak eta handinahiak, hau da, genialitateak, bere jokoa ikuskizun bikaina bihurtzen zuten. Handiena zen. Apustueta beti faboritoa. Ameriketako pilotaria zenbaki soila bilakatzen da. Bolibar, ordea, salbuespena zen. Ez zen 15a, 25a edo 47a; Bo-li-bar zen, «the best» amerikarren hitzetan. Neurri guztiak puska ez zitzaizkion, intendenteak gurekin, hasberriekin jartzen zuten bikote. Alferrik zen, «txula» zaindu baino ez zegoen, «laga» oihuari kaso egin eta «kanpora» oihukatu. Guztiak harrapatzen zituen. Zabalean, motzean edo errebotean, baita pilotak egin zezakeen edozein bitxikeritan. Leku egokian, ezin hobean paratzen zen beti. Uda hartan Euskal Herrian ere goreneko maila iritsi zuten puntakoei irabazi zielarik eta beragatik gaizki esaka zebiltzanak isilarazi zituen. Bere famak gora egin zuten, hala nola bere inguruan sortutako mitoak. Gaur gauean Txikito Galarretan izango dugu. Mitoa berpiztu egin da. Aranbururekin bikote, etorkizun handia duten bi gazteren kontra jokatu du, Kastaños eta Barrondoren aurka, hain zuzen; bera baino hamalau urte gazteagoak. Nire gogoa Tampa garaietako dudaren Bolibarren oroitzapenari dago atxekirik, nahikoa zitzaion «kanpora!» deiaraz egitea.

Euskadiko Zestapunta Txapelketako partiduak gaur Hernaniko Galarretan

Alberdi-Retolaza eta Txikito-Aranburu dira faboritoak

Euskadiko Zestapunta Txapelketako bi partidu jokatu dira gaur Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Alberdi-Retolaza eta Txikito de Bolibar-Aranburu dira norgehiagoka hauek irabazteko faboritoak, joan zen astelehenean jokaturako estreinu partiduetan garaipena lortu ondoren.

DONOSTIA

Alberdi eta Retolazak arazo handirik gabe irabaziko dute gaurko partidua, teorian faborito bezala agertzen bait dira. Jauregi eta Unanue, partidu honetako arerioek galdu egin zuten lehen partidua, joko ona egin zuten arren. Jauregi bikain jokatu zuen astelehenean Txikito de Bolibar bezalako jokalar handiaren aurka eta gaur maila hori erakusten badu, aurreko koadroetan nagusitzeko gai izango da dudarik gabe. Atzeko koadroetan aldiz, Retolaza izango da nagusituko dena orain arte bezala jokatu gero. Tantuak behar bezala amaitzean egongo da beraz, partidu honetako garaia.

Txikito de Bolibar eta Aranburuk erraz irabazi zuten estreinu partiduan, beren joko maila erakutsi ez arren. Gaur Kastaños-Barrondo bikote zaila izango dute aurrean, baina beren jokoa egiten badute, ez dute



Zestapuntak erremontearen lekukoa hartuko du arratsaldean Galarretan. SIVVA

arazo gehiegi izango garaipen berri bat eskuratzeko. Txikito de Bolibar, munduko aurrelari onenak, bere kalitatea erakusten badu, partiduak emozio gutxi izango du, momentu honetan bi bikoteen arteko alde handia bait da.

Partidu hau galtzen badute, min

asko egingo die dudarik gabe lehenengo partidua galdu zuten bikoteei. Finalerdietarako sailkapena lortzea nahiko zaila da eta bi partidu jarraian galtzeak txapelketatik kanpo gelditzea ekar dezake, bikote faboritoa eta gainontzekoen artean alde handiegia bait dago.

Aurizko pilotariak herriko omenaldia jasoko dute bihar

A.B. / IRUNEA

Bihar omenaldia jasoko dute Aurizko pilotariak herrian, eta pilota partiduaz gain, haien ohorezko oroitarria inauguratuko da. Zizelaturik, Xalbador bertsolari urepeldarraren hitzak: «Pilota maiteari / leial egon gaiten / hark lagun / gaitzan gero / euskaldun irauten».

Egitarrak arratsaldeko bostetan izanen du hasiera, oroitarriaren inaugurazioarekin, eta Juan Bautista Etxarren idazleak pilotariaren omenez irakurriko duen izkribuarekin. Ondoren, pilota partiduak izanen dira. Eskuz, Lujanbio-Armendariz Goñi-Balderdiren aurka arituko dira, eta palaz, Iturri-Arrosagarai Villanueva-Altidillaren aurka.

Auritzen, Santi Ezeberri adierazten duenez, betidanik izan dira pilotari famatuak, baina txapelketetan parte hartu ez zutenen artean ere izan dira eskulari bikainak, askotan apostu eta desafiotan ibili izan direnak. Ohizkoak ziren Aurizko pilotariak Aldudes, Urepel eta Arnegikoekin kontra jokatzeko zituzten partiduak, askotan lau pilotariak Auritze-koak baldin baziren ere, «maila al-

tuegia zuten eta». Horrela, 1944. urtean, bost bikote auriztarrek desafioa bota zuten Euskal Herriko beste edozein herritako bost bikoteren aurka. Arrasaten ozta ozta osatu ziren bost bikote, baina horietariko bat profesionala zen, eta enpresak ez zieten parte hartzen utzi «beldurra zela eta».

Bertako pilotarien artean, aipatzekoa da Justo Dufur, eskuz banakako eta binakako txapelduna zen bait urtez. 1943an, horrela, bi txapelketetan parte hartu eta bietan irabazi zuten, bi finalen artean atsedetik izan gabe. Garai hartan Atano III txapeldunaren aurka ere aritu zen Dufur Atarrabian, izugarritzko ikusmina sortu zuten partidu batean. 22-21 irabazi zuten gipuzkoarrak, baina bukatzean laudorio franko izan zituzten auriztarrekiko, bere maila ona zela eta.

Profesionalekin batera afizionatu asko zeuden herrian, «Dufurren mailakoak denak», hala nola, Ardanaz, Irigarai, Iturri, Otheguy, Pedroarena, Larrañeta, eta abar, eta azken urtekoak azpimarratzekoak dira Cabadas, Zilbeti, Otheguy Urtaşun, Iturri, Telletxea...

Karteldegia

Gaurko partiduak

GALARRETA. 16.00. Urkia - Zestau II / Zeberio - Imaz. Intxaurreburu - Mujika / Elizalde II - Eizagirre. Arregi - Barrenetxea / M. Lekunberri - Etxeberria. Ezkurra - Astrain / Ollo - Aranburu II.

GALARRETA. 10.30. Euskal Herriko Zestapunta Txapelketa: Alberdi - Retolaza / Jauregi - Unanue. Txikito de Bolibar - Aranburu / Kastaños - Barrondo.

EUSKAL. 16.00. Larrañaga - Urretabizkia II / Kalonge - P. Lekunberri. Aseginolaza-Mujika/Altuna - Lekunberri. Guenbe - Saldias / Urretabizkia I - Ezkurdia II. Urrutia - Auzmendi / Lezea - Ulzurrun.

MUTRIKU. 16.30. Gorostidi - Agirre / Manzisidor - Urretabizkaia. Elorz - Zubizarreta / Juantxo - Luke. Azkoitia / Astigarraga.

ADARRAGA. 19.45. San Mateoko torneo. B multzoa: Tolosa III - Retegi IV / Etxaniz - Aldazabal II. A multzoa: Bergara II - Tolosa / Eugi - Arretxe.

DEPORTIVO. 16.30. Agirre - Astola / Garma - Maruri. Isusi II - Lizardi I / Iriondo - Torre. Arrilaga - Goldarazena / Peluaga - Langarika.

Igandeko partiduak

ZARAUZ. 16.30. Irazola / Ariznabarreta. Bengoetxea IV - Errasti / Zabala - Aldazabal II. Intxaurreburu - Urra / Telletxea - Andueza V.

LABURREAN

FLAMURTARIKO hiru jokalarik babes politikoa eskatu dute

Albaniako Flamurtari futbol taldeko hiru jokalarik babes politikoa eskatu zuten Suedian. Europako Kopako partidua jokatu ondoren. Flamurtarik Göteborgen aurka jokatu zuen Europako Kopako partidua eta berdinketa lortu zuen. Suediako agintariek ez dute hiru jokalar hauen nortasunik azaldu. Albaniarrak Göteborg hirian errefuxiatu politikoak jasotzeko etxe batean daude. Suediako agintariek hurrengo egunetan erabakiko dute jokalar hauekin zer egin.

MONICA SELESEK ez du jokorik galdu Kidowakiren aurka

Monica Seles tenislari jugoslaviarrak izugarritzko jipioa eman zion Maya Kidowaki japoniarrari, Nichirei tenis torneoaren barruan. Seles, lehen zerrendaburuak, ez zuen partidu guztian zehar jokorik galdu eta 6-0, 6-0ko emaitza irabazi zuen. Beste partidu batean, Katerina Maleevak arazo handiak izan zituen finalerdietarako sailkatu ahal izateko. Bulgariarrak 6-3, 3-6 eta 6-1 menperatu zuten Laura Gildemeister peruarra. Seles, Fernandez, Maleeva eta Frazierrek jokatu dituzte finalerdiak.

FISKALA Maradonaren aurkako salaketa aldatzearen alde

Luis Moreno Ocampo, Maradonaren auziko fiskalak, jokalararen egoera judiziala berraztertze eskatu zuen atzo, «drogomenpekotasun arazoa duelako». Moreno Ocampok esan duenez, Diego Maradonak ez du Amelia Berraz epaileak azalduko zigor gogorrik merezi. «Arazo hau beste bide batetik eramatea beharrezkoa dela uste dut. Maradonak drogomenpekotasun arazoa du eta medikuen laguntza derrigorrez eman behar zaio».

BLAINE MCCALLISTER Endicott golf torneoko liderra

Blaine McCallister estatubatuarrek eskuratu zuten Endicott golf txapelketako lidergoa lehen ihardunaldia jokatu ondoren. McCallisterrek 64 kolpe, zazpi parraren azpitik, behar izan zituen ibilbidea egiteko. Lance Ten Broeck eta Steve Lowery sailkatu ziren McCallisterren atzetik, 66 kolpe egin ondoren.